



“BATALLA POR TU ESTILO-ZEURE ESTILOARI EUTSI” LEHIAKETA: PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Batalla por tu estilo-Zeure estiloari eutsi inprobisatutako rap lehiaketa da (free style), rapero gazteentzat (14-25 urte), 14 gaztek (7 neska eta 7 mutil) osatutako Junior Empresa Newen Elkartek proposatua. Lehiaketaren helburuak lagunarteko giroa, asmamena eta buru-argitasuna bultzatzea eta raparen irudi positiboa eta sortzailea ematea da, kultur adierazpide moduan. Modalitate bi egongo dira: euskaraz eta gaztelaniaz.

“Zeure estiloari eutsi” Bilboko Udaleko Gazteria eta Kirol Sailak antolatutako **IDEIAK MARTXAN** programaren barrukoa da, Bilboko gazteentzako udal programazioa aberastu nahi duena, **gazteek proposatutako ekimenak** antolatuta eta Bilbao Gazte 2016-2019 prozesua bideratzeko baliagarriak direnak.

Nork eman dezake izena?

14tik 25 urtera bitarteko gazteek (jaioteguna 1992ko urtarrilaren 1etik 2003ko abenduaren 31ra bitartekoa).

- Nola eman izena parte hartzeko?

Bidali bideo bat edo bideo baterako lotura helbide elektroniko honetara: batallaportuestilo@gmail.com. Bideo horretan zeuk bakarrik edo lehenagoko lehiaketaren batean agertu behar duzu inprobisatzen. Inprobisatutako testuak originalak izango dira (zeuk eginak), euskaraz zein gaztelaniaz idatziak. Parte-hartzaile bakoitzak gehienez bideo bat bidali dezake hizkuntza bakoitzean. Bideoaz gain, mezu elektroniko horretan baldintza hauekin batera doan fitxa bete behar duzu honakoak jasota: zure izena eta abizen bi, izen artistikoa, NAN, jaioteguna, herria, helbide elektronikoa eta telefono-zenbakia. Antolatzaileek mezu bat bidaliko diote parte-hartzaile bakoitzari, izena emateko mezua jaso dutela adierazteko.

- Noiz eman izena?

Izena emateko epea **otsailaren 17tik 27ra bitartekoa izango da (egun bi horiek barne)**.

Lehiaketaren epaimahaia, irizpideak eta faseak

Modalitate bakoitzerako epaimahai bat egongo da (euskaraz edo gaztelaniaz), rap munduarekin lotutako 3 gaztek osatua. Bideoak zein zuzeneko emanaldiak aukeratzeko irizpidea aurkeztutako proposamenaren kalitatea izango da, batez ere asmamena, buru-argitasuna eta lagunarteko giroa baloratuta, baita raparen irudi positiboa eta sortzailea ematea ere. Epaimahaiak zigortu edo kanporatu egin ditzake zuzeneko emanaldietan esamolde iraingarriak, mingarriak edo diskriminatzaileak erabiltzen dituztenak.

1. FASEA.- Parte-hartzaileak aukeratzea

Lehiaketan izena eman dutenen artean, epaimahaiak gutxienez 32 aukeratuko ditu 2. fasera pasatzeko (sailkatzeko fasea), honela banatuta:

- 16 gaztelaniazko modalitaterako
- 16 euskarazko modalitaterako

Banaketa hori aldatu egin daiteke, edota gehienez 64ra arte gehitu aukeratutako pertsonen kopurua, epaimahaiaren irizpidez eta modalitate bakoitzerako jasotako inskripzio-kopuruaren arabera. Modalitate bietatik edozeinetan inskripzio-kopurua txikia bada, epaimahaiak 8 pertsona aukeratu ahal izango ditu kategoria horretan eta 3. fasera pasatuko litzateke zuzenean (finalurrekoa).

Martxoaren 1ean argitaratuko dira Bilbao Gazteren web-orrian eta sare sozialetan

(bilbaogazte.bilbao.eus) sailkatutako pertsonen izen-abizenak. Aukeratutakoei antolatzaileek mezu elektronikoa bidaliko diete jakinarazteko.

2. FASEA.- Sailkatze-txandak

Modalitate bietarako egingo dira **2017ko martxoaren 3, 10, 17 eta 24an** Deustuko Barrutiko Udaltegiko ekitaldi-aretoan (Agirre Lehendakariaren etorb. 42, Bilbo), 18:00etatik 21:00etara bitartean. Lehenengo



fasean aukeratutakoek zuzenean jardungo dute goian aipatutako egunetako batean eta jarraiko kanporaketetan lehiatuko dira. Epaimahaiak honela aukeratuko ditu parte-hartzaileak:

- Gaztelaniazko modalitatea: guztira 8 parte-hartzaile, 3. fasera (finalaurrekoa) pasatuko direnak
- Euskarazko modalitatean: guztira 8 parte-hartzaile, 3. fasera (finalaurrekoa) pasatuko direnak

3. FASEA.- Finalaurrekoa

2017ko martxoaren 31n jokatu da Deustuko Udaltegiko ekitaldi-aretoan (Agirre Lehendakariaren etorb. 42, Bilbo), 18:00etatik 21:00etara bitartean. Bigarren fasean aukeratutako pertsonak zuzenean jardungo dute jarraiko kanporaketetan. Epaimahaiak kategoria bakoitzeko 4 parte-hartzaile aukeratuko ditu, 4. fasera (finala) pasatzeko.

4. FASEA.- Finala:

Modalitate bietako finalak **2017ko apirilaren 28an (barikua)** jokatu dira **Bilborocken** 20:00etatik aurrera.

Parte-hartzaileak:

- Euskarazko modalitatea: guztira 4 parte-hartzaile (epaimahaiak aurreko faseetan aukeratutakoak)
- Gaztelaniazko modalitatea: guztira, 16 parte-hartzaile:
 - Aurreko faseetan epaimahaiak aukeratutako 4 parte-hartzaile
 - Antolatzaileek gonbidatuta Estatuko beste lurralde batzuetatik etorriko diren 12 parte-hartzaile.

Kategoria bakoitzeko epaimahaiaren erabakia finalaren egun berean jakinaraziko zaio han dagoen publikoari. Geroago, Bilbao Gazteren web orrian eta sare sozialetan argitaratuko da.

Sariak

- Euskarazko modalitatea:
 - 1. saria: 300 euro.
- Gaztelaniazko modalitatea:
 - 1. saria: 300 euro.

Hirugarren pertsonen eskubideak eta baimenak

Parte-hartzaileek bidaltzen dituzten edo zuzeneko emanaldietan egiten diren inprobisazioek hirugarren pertsonen egile-eskubideak urratuz gero, lehiaketaren antolatzaileek ez dute euren gain hartuko horren erantzukizuna eta parte-hartzaileak eurak izango dira erreklamazioaren ardura edukiko duten bakarrak.

Lehiaketan parte hartzen duten pertsonak baimena emango diote lehiaketaren antolatzaileei lehiaketan parte hartzeagatik sortutako irudiei eta musikari zabalkundea emateko, merkataritzako erabilerarik gabe; baita lehiaketa bera bultzatzeko aurkeztutako kanten grabazioa ere.

Lehiaketako parte-hartzaileek aurkeztutako ikus-entzunezko lanak erabili, aldatu eta argitaratu ahal izango ditu Bilboko Udalak, Bilboko gazteentzako programen gestioaren esparruan. Obraren egilea izango da obra horietan ager litezkeen pertsona fisikoen baimen informatuak jasotzeko arduraduna eta pertsona horiek ez dira inoiz 14 urtetik beherakoak izango.

Baldintzak onartzea

Lehiaketan parte hartzeak esan nahi du izena eman duen parte-hartzaile bakoitzak baldintza hauek osoz onartu dituela.

Antolatzaileek aldaketa egin ditzakete oinarri hauetan, lehiaketa modu zuzenean gauzatzeko.

INFORMAZIOA:

Helbide elektronikoa batallaportuestilo@gmail.com

Web orria: bilbaogazte.bilbao.eus

Twitter: twitter.com/BatallaXTEstilo